



MENDOZA PEÑA, Jose Luis

*Euskara Kultur Elkargoa* Fundazioko lehendakaria  
Zapateria kalea, 50, 1.D  
31001 Iruña  
jmendoza@pn.te.cfnavarra.es

BIBLID [1137-1951 (2002), 9; 63-72]

# Euskararen egoera juridikoa Nafarroan

(The legal situation of the Basque language in Navarre)

**A**rtikulu honetan egileak gaur egungo euskararen egoera juridikoa aztertzen du legediari jarraipen kronologikoa eginez. Bertan Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa (1982), Euskararen Legea (1986) eta 372/2000 Foru Dekretua, batez ere, arakutzen ditu. Era berean, Udal eta Estatuko Administrazioak kontuan izan ditu.

**E**n el presente artículo, el autor analiza la situación jurídica del euskera en Navarra, haciendo un seguimiento cronológico del ordenamiento. Se detiene especialmente en la Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra (1982), en la Ley Foral del Vascuence (1986) y en el Decreto Foral 372/2000, así como en las Administraciones local y estatal.

**D**ans cet article, l'auteur analyse la situation juridique de l'euskera en Navarre, en faisant un suivi chronologique de l'ordonnance. Il s'attarde spécialement sur la Loi Organique de Réintégration et d'Amélioration du Régime Foral de Navarre (1982), sur la Loi Forale du Basque (1986) et sur le Décret Foral 372/2000, ainsi que sur les Administrations locale et étatique.

---

1. **Sarrera.** 2. **Euskarari buruzko nafar legeria:** 2.1. Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa. 2.2. Euskarari buruzko Foru Legea. 3. **Erregelamenduzko garapena:** 3.1. 70/1994 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa. 3.2. 135/1994 Foru Dekretua, uztailaren 4koa. 3.3. 372/2000 Foru Dekretua, abenduaren 11koa. 3.4. 2001eko urtarrilaren 8ko eta 2001eko otsailaren 5eko Gobernu Akordioak. 4. **Udal Administrazioa.** 5. **Administrazio Zentrala.**

---

## 1. Sarrera

Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen bidez onartu zen Euskarari buruzko Foru Legea indarrean sartu zenetik hamabost urte igaro diren honetan, euskarak Nafarroako Foru Komunitatean izan duen bilakaerari buruzko hausnarketa bat egiteko garaia da, egun bertan duen egoera juridikoa ulertu ahal izateko.

Ezin ahaztu duela mende batez geroztik euskara eta euskal kultura *nabarrismo* eta *baskismo* ideologiaren arteko ika-miken jomugetako bat izan direla<sup>1</sup>.

XIX. mendean Foruen defentsa izan baldin bazen Nafarroako eztabaida politikoen ardatz nagusia, "euskal gaia" dugu XX. mendekoa.

1978ko Konstituzio Espainiarrean, tradizionalki bertan bizi ziren hizkuntza desberdinekiko errespetu printzipioa finkatu zen, eta, geroztik, "errespetu eta babes berezia merezi duten kultur ondare" dira (3. artikulua).

Gaztelaniaz gain beste hizkuntza propio bat zeukaten autonomia erkidegoak, orduan, hizkuntza normalkuntza prozesuetan murgildu ziren, beren hizkuntzak babesteko asmoz legegintza bideak zabaldu eta oztupoak gainditzeko helburuarekin. Ordura arte, denbora luzean, bazterketa, axolagabezia eta erasoak jasan zituzten.

Agintari nafarren jarduerak ez zuen zertan salbuespenezkoa izan behar, baina, tamalez, Nafarroan euskararen inguruko auziak ez dio arrazionaltasunaren bideari jarraitu, norgehiagoka politikoaren ildoari baizik.

Nafarroako legegilea ez da konturatu euskararen auzia ez dela euskal kontzepzio nazionalista

baten asmakuntza; aitzitik, herriaren antzinako kultura tradizionalen errotuta dagoen kultur adierazpen bat da, Estatu mailara zabaldua dagoena, eta Espainiar Konstituzioak bertan aintzatesten duena.

---

“ Tamalez, Nafarroan euskararen inguruko auziak ez dio arrazionaltasunaren bideari jarraitu, norgehiagoka politikoaren ildoari baizik ”

---

Fenomenoak dimentsio europarrak ere hartu ditu. Europako Kontseiluaren **Hizkuntza Erregional edo Gutxiagotuen Karta Europarrarekin batera doan Azalpenen Txostenak** dioenez, Kartaren helburu nagusia "hizkuntza erregional edo gutxiagotuak babestu eta sustatzea da, kultur ondare europarraren alderdi izanik mehatxatuta daudelako". Ildo berekoa da Kartako 7. artikulua ere. Bertan, Estatuak beren politika, legegintza eta praktikan izango dituzten helburu eta printzipioak zerrendatzen dira. Horien artean, honakoak azpimarra genitzake:

- "hizkuntza erregional edo gutxiagotuak kultur aberastasunaren adierazpen gisa aintzatestea."
- "hizkuntza erregional edo gutxiagotu bakoitzaren eremu geografikoa errespetatzea, banaketa administratiboek ez dezaten hizkuntza horien sustapena eragotzi."
- "hizkuntza erregional edo gutxiagotuak sustatu eta babesteko ekintzak prestatzea".
- "arlo publiko eta pribatuan hizkuntza erregional edo gutxiagotuen ahozko eta idatzizko erabilera erraztu eta sustatzea".

Kontuan hartu behar da Espainian 2001eko abuztuaren 1ean sartu zela indarrean Hizkuntza

---

1. Modu sinplifikatu batean esateko, *nabarrismoa*, egun Euskal Herria osatzen duen euskal entitate politikoaren aurkako ideologia eta proiektu politikoa litzateke, eta *baskismoa*, berriz, entitate politiko horren aldeko ideologia eta proiektu politikoa litzateke. Alde batera utzi ditut, beraz, kultur arloari baka-rik begiratzen dioten *nabarrismo* eta *baskismoa*, berez egon badauden arren.

Erregional edo Gutxiagotuen Karta Europarra, espainiar Estatuak 2001eko irailaren 15eko BOEn argitaratutako Berrespen Instrumentuaren bidez berrestu ondoren.

Benetan pena da gure ordezkari politiko nafar askok, europarzaletasun handia azaldu arren, ez sentitzea direktz europarrak *lingua navarrorum*-ari aplikatzeko komenentzia edo beharrik.

Jarraian, begirada bat botako diogu euskarak Nafarroako Foru Komunitatean izan duen arau bilakaerari.

## 2. Euskarari buruzko nafar legeria

### 2.1. Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa (LORAFNA), Nafarroako Autonomia Estatutu baten modukoa da, nahiz eta inoiz ez duen herritarren errefrendua jaso. Bere 9. artikuluan, Nafarroako hizkuntza ofiziala gaztelania dela aldarrikatu ostean, zera dio: "euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan. Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilerara ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorra abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakas-kuntza antolatuko du".

Arau honen ezaugarriak azpimarragarriena da Nafarroako eremu bakar baterako aurreikusitako duela euskararen ofizialtasun eraentza; eremu euskaldunerako alegia. Geroagoko lege bati eragortzen dio bere edukia.

Negoziatzaile nafarrek ez zuten Nafarroako Parlamentuaren mandatu hau bete, eta, 1980an, euskara eta gaztelaniaren koofizialtasuna Nafarroa guztira zabaltea eta elebitasun hori Nafarroako eta Estatuko ordezkariak negoziatu beharreko Foruaren Hobekuntzan txertatzea erabaki zuten.

Elebitasuna ofizializatzeko erabakia HBk Parlamentua utzi baino lehen hartu zen, eta horrek indarren korrelazio berriak ekarri zituen. UCDren bulego ministerialetan hartu zen Parlamentuak hartutako akordioa ez errespetatzeko erabakia. Zergatia inoiz ez da behar bezala azaldu.

Argi dagoena da Foru Hobekuntzako 9. artikulua behin betiko edukiak euskararen inguruan gerora sortu den araudi guztia baldintzatu duela.

**Goio Monrealek** dioten bezala,<sup>2</sup> *"etorkizunean, ofizialtasun lurraldetar partziala izango da (hots, gai honi dagokionez gainerako autonomia estatutuekiko desberdintasun nagusia) garapenezko araua instrumentalizatzeko orduan Nafarroako aniztasun soziolinguistikoari trataera malgu bat emateko eragozpenik handiena"*.

### 2.2. Euskarari buruzko Foru Legea

**LORAFNA**n xedatutakoa betetzeko, **abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea** onartu zen, Nafarroan euskararen erabilera arautzen duena.

Legea sortu zeneko inguruabarrak, onenak izan ez arren, ez ziren txarrenak ere izan. Batetik, Nafarroako legea hizkuntza normalizazioari buruzko Estatuko lege guztien artean kronologikoki azkena izan zen; beraz, gure legegileek gainerako autonomia erkidegoek finkatutako ildoak jarraituko zituztela espero zitekeen. Bestetik, espekto parlamentarioa, euskarari dagokionez, inoiz baino egokiagoa zen. Proiektua sustatu zuen alderdi sozialistaren botoei HB eta EArenak gehituz, 30 botoko gehiengoa lortzen zuten gainerako lau alderdien aurrean, hauek guztira 20 boto baitzituzten. Pentsatzekoa zen alderdi nazionalistek, elkarrekin jardunez gero, alderdi sozialistaren proiektua beren onerako aldatzea lortuko zutela, baina ezker abertzalearen autokanporaketak guztiz txikitu zuen planteamendua. Beraz, sozialistek nola edo hala aurrera atera nahi zuten hainbeste atzeratzen ari zen euskarari buruzko legea, eta EArekin batzean ez zituenez aldeko 23 boto baidirik lortzen, gehiengoa eskuineko sektoreen artean bilatzea beste aukerarik ez zuten izan, eskuindarrak hasiera batean proiektuaren aurka bazeuden ere. Logikoa denez, eskuinak ordaina eskatu zuten. Hortaz, proiektua berez ez baldin bazen euskaltzaleen gustukoegia, bukaerako emaitzak, legearen egungo edukiak alegia, erabat zapuztu zituen nafar askok eta askok Foru Komunitatean euskararen trataeraren inguruan norabidea aldatuko zenaren inguruan zeuzkaten itxaropenak.

Lege testua euskal talde nazionalisten oposizioarekin onartu zen. Talde hauek dira, hain zuzen ere, legeak hizpide duen hizkuntzan mintzatzen direnen boto gehienak jasotzen dituztenak.

Legea eztabaidatzeko unean sortu ziren tentsio politikoek, Legearen beraren ezaugarri batzuren berri ematen dute; bere anbiguetatea eta zehaztasun tekniko falta batik bat.

2. MONREAL ZIA, G. "La oficialidad jurídica del euskera en Navarra", in E. COBREROS (koord.), *Jornadas sobre el régimen jurídico del euskera*, Oñati: HAAE-IVAP, 1990; 137. or. Euskarak 1990.era arte izandako egoera juridikoaren panorama bikaina eskaintzen du artikulua.

MENDOZA PEÑA, Jose Luis. Euskararen egoera juridikoa Nafarroan. *Eleria*. 9, 2002, 63-72

Francisco Javier Eneriz bezalako autoreek diotenez, “Euskarari buruzko Legeko arau askok ez dute inolako eduki inperatiborik; birtualtasunik gabeko arauak dira, eta Administrazio Publikoei Zuzendutako aholku edo direktibak besterik ez dituzte jasotzen. Horregatik, Foru Legearen zenbait zati programa politikoak bezalakoak edo alderdi publikoak animatu behar dituzten asmoen laburpenak bezalakoak dira. Hala ere, herritarrei ez zaie inolaz ere eskubide subjektiborik aintzatesten edota Administrazioari betebeharririk ezartzen<sup>3</sup>”

Jakina denez, Euskarari buruzko Foru Legearen alderdirik azpimarragarrienak, eta hizkuntza propioa daukaten beste autonomia batzuetako legeekiko gehien bereizten dituztenak, **hizkuntza zonifikazioa** (horrek dakartzan ondorio guztiekin) eta **muga batzuren ezarrera** lirateke.

Legeak hiru eremutan banatzen du Nafarroa:

a) **eremu euskalduna**. Euskarak, gaztelaniarekin batera, hizkuntza koofizial maila daukan eremu bakarra.

b) **eremu mistoa**. Iruña barne hartzen du, eta eremu honetantxe bizi da Nafarroako biztanleriaren erdia baino gehiago. Praktikan garrantzi handia du, bertan kokatzen baitira Administrazioaren zerbitzu nagusiak. Administrazio Publikoei euskaraz “**zuzentzeko**” eskubidea aitortzen zaie herritarrei.

c) **eremu ez-euskalduna**, aurreko bietan sartzen ez diren gainerako udalerriek osatzen dutena.

Honela banatuta dago Legea: Atariko Titulua, 1. artikulutik 5.era; I. Titulua, “Erabilpen normal eta ofiziala”, (6-18 artikulua); II. Titulua, “Irakaskuntza”, (19-26 artikulua); eta III. Titulua, “Komunikabide sozialak” (27 eta 28 artikulua).

Bere 5. artikuluan, eremu euskaldunean eta eremu mistoan zein udalerrri dauden zehazten du.

Zonifikatze hau errebisatzeko, eta foru legea aldatu ahal izateko, Parlamentuaren gehiengo absolutua beharko da<sup>4</sup>.

Hona euskarak eremu bakoitzeko daukan eraentza juridikoa:

a) **Eremu euskalduna**.- Oro har esan daiteke foru administrazioan euskararen erabilera ofi-

## “ Legearen edukiak erabat zapuztu zituen nafar askok eta askok Foru Komunitatean euskararen trataeraren inguruan norabidea aldatuko zenaren inguruan zeuzkaten itxaropenak ”

zialari buruzko xedapenak funtsean bat datozela beste autonomiek beren lurraldeei dagokienez onartutakoekin. Euskarak eta gaztelaniak ofizialtasun maila bera daukate honako arlo hauei dagokienez: espediente eta prozedurak, agiriaren inskripzioa erregistro publikoetan, jakinarazpen eta komunikazio administrazioak, kopia eta ziurtagiriak, foru administrazioari atxikitako langileen pixkanakako euskalduntzea euskara jakitea derri gorrezkoa edota merezimenduzkoa den lanpostuetan, eta baita beste gai batzuetarako ere, hala nola toponimoak, Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Parlamentuko Aldizkari Ofiziala, betiere elebidunak izan beharko baitute<sup>5</sup>.

Honela arautzen du irakaskuntza Legearen 24. artikulua:

“1. Ikasle guztiak irakaskuntza hartuko dute, guraso-boterea edo tutoretza daukan pertsonak, edo hala badagokio, ikasleak berak aukeraturako hizkuntza ofizialean.

2. Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan derrigorrezkoa izanen da euskara eta erdararen irakaskuntza, ikasle guztiak oinarrizko eskolatzearen bukaeran bi hizkuntzetan gaitasun maila nahikoa frogatu ahal izan dezaten.

3. Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko ikasketak eremu euskaldunetik at hasi dituzten ikasleak edota eremu honetan ohiko ez den bizilekua dute-

3. Ikus ENERIZ OLAECHEA, F.J. “El euskera en la Administración Local de Navarra”, in RAZQUIN, M.-LARUMBE, P. *La Administración Local de Navarra*, Iruña: Aranzadi, 1987; 308 eta hurr. orr.

4. 1998. urtean, CDN alderdiak Ilunberri **eremu ez-euskaldunatik eremu mistora** pasatzea proposatu zuen, udalaren izanean. Proposamenak ez zuen arrakastarik izan UPN eta PSOEek kontrako botoak eman ta gero.

5. Hala ere, Aldizkari Ofizialek bi bertsio desberdinetan daude, gasteleraz eta euskaraz.

la justifikatzen dutenak, euskararen irakaskuntzatik salbuetsiak izan daitezke”.

Arau hau garatzen duten hainbat erregelamendu onartu dira. Horien artean, maiatzaren 15eko 159/1988 Foru Dekretua azpimarra liteke, euskara irakaskuntza ez-unibertsitarioan sartu eta erabiltzekoa.

Legearen 27 eta 28. artikulua komunikabide sozialei buruzkoak dira. Lehenengoak, honela dio:

*“Administrazio Publikoek bultzatuko dute euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide sozial publiko eta pribatuetan.*

*Horretarako, eta komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohiko moduan erabil dezaten, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu.*

*Foru Komunitateak gestionatzen dituen telebista eta irrati emisora eta gainerako komunikabideetan, Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia egokia begiratuko du.”*

**b) Eremu mistoa.**- Esan bezala, eremu mistoan bizi da Nafarroako jende gehiena, Iruña eta bere eremu metropolitarrak hartzen baititu. Eremu honetan eremu euskaldun bezainbat euskaldun bizi dira; horregatik, eremu honetan aplikatzen den eraentzak oso garrantzi handia du hizkuntzaren etorkizunerako.

Bertan, **euskara ez da hizkuntza ofiziala.**

Foru Legeko 17. artikulua dioenez, “herritar guztiak euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Nafarroako Administrazio Publikoari zuzentzeko”.

Beraz, herritarrek Administrazioari euskaraz zuzentzeko eskubidea daukaten arren, Administrazioak ez dauka herritarrei euskaraz erantzuteko obligaziorik.

Herritarren eskubide honen egikaritzea bermatzeko, Legeak zera dio bere 2. paragrafoan: “Administrazioek honako hau egin dezakete:

a) *urteroko lanpostuen eskaintza publikoan zein lanpostutarako izanen den nahitaezko euskaraz jakitea zehaztu.*

b) *gainerako lanpostuetara iristeko deialditan euskararen ezagupena merezimendutzat baloratu.”*

Hortaz, Administrazio Publiko bakoitza izango da lanpostu bat hornitzeko euskara jakitea exijituko ote duen edo ez, meritu gisa puntuatuko duen, edota inolako baliorik ez ematea askatasun osoz erabakiko duena.

Eremu euskaldunari buruzko artikulua eztabaidatzerakoan ez bezala, eremu mistoari

buruzko debate parlamentarioan ezadostasun handiak sortu ziren. Tirabira latz eta sutsuak izan ziren taldeen artean. Hain zuzen ere eremu mistoa izan zen liskar gehien eragin zituen puntua –oraindik ere hala egiten jarraitzen du-, bertan baitaude kokatuta foru administrazioaren zerbitzu nagusiak. Gainera, kontuan izan behar da bai UPN eta bai Grupo Popular ere (11 eta 3 aulki, hurrenez hurren) eremu mistoaren idearen aurka zeudela; praktikan, ildo horretatik bertatik jarraitzen dute. Beren asmoa, zonifikazioaren bidez eremu euskalduna eta ez-euskalduna bakarrik bereiztea zen, baina une hartan ezinezkoa zenez horrelakorik egitea, ahalik eta etekinik handiena ateratzen saiatu ziren. Beraz, hasierako proiektuaren formulazioan aldaketa handiak eginez, Del Burgoren Grupo Popularra alderdi sozialistari eta Pegenauteren (gaur egun Unibertsitateen eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia) Grupo Moderado-ri atxiki zitzairen. Hori dela-eta, eremu mistorako proiektuak aurreikusten zituen hiru artikuluetatik bakarra gelditu zen azkenean, gaur egun 17.a dena. Administrazio publikoekin **harremanetan jarri** beharrean, **zuzendu** ipini zen, eremu ez-euskaldunari erreserbatutako formula bera; **zehaztuko dute** zioen lekuan, **zehaztu ahal izango dute** ipini zen, eta, batik bat, kendu egin zen zera zioen paragrafoa: “(Nafarroako Gobernuak)... erregelamendu bidez Foru Komunitateko Administrazio Saitetan euskara erabiltzeko eskubidea bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu”.

Horren guztiaren ondorioz, 17. artikuluari gaur egun daukan edukia eman zitzaion. Hasierako proiektuaren tenorea deskafeatzeaz gain, nahiko formulazio fortzatuak daukala esan beharra dago, eta, batez ere, inkoherentea, ez baita ondo ulertzen zein funts logiko daukan euskara jakitea derrigorrezkoa edo merezimenduzkoa duten lanpostuak zehazteak, herritarrek Administrazioari zuzentzeko eskubidea besterik ez baldin badaukate (**idatziz**, ulertzen da).

Eremu mistoko irakaskuntzari dagokionez, zera dio Legearen 25. artikulua:

“1. *Euskara irakaskuntzan sartzea mailaz maila, gero eta gehiago, eta nahikotasunaz egiten da, ikastetxeetan eskatzen dutenendako euskarazko irakaskuntza duten ereduak sortuz.*

2. *Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan euskara irakatsiko zaie nahi duten ikasleei, oinarritzko eskolatzearen bukaeran euskararen ezagupen nahikoa izan dezaten”.*

**c) Eremu ez-euskalduna.**- Foru Legeak artikulua bakar bat eskaintzen dio eremu ez-euskaldunari; hots, 18.a: “*Aitoru egiten da herritarrek Nafarroako Administrazio Publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea dutela. Azken hauek interresatuei gaztelaniazko itzulpena eska diezaizkete, edo 9. artikuluan aurreikusitako itzulpen zerbitzuak erabili.”*

Ondorio gisa, esan dezakegu Euskarari buruzko Foru Legeak, muga batzurekin sortu bazen ere, izaera murriztailea duen arren, eta zonifikazioak suposatzen duen guztiaz gaindi, baduela azpimarratzeko moduko birtualtasun positiborik ere. Alderdi hauek gehienbat bere Atariko Tituluan daude jasota, eta, zehazkiago, 1. artikuluan, bertan jasotzen baitira Foru Lege honen helburu nagusiak:

a) herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.

b) Nafarroan euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.

c) Euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraiki, hau guztia Nafarroako errealtate soziolinguistikoaren arabera.

### 3. Erregelamenduzko garapena

Euskarari buruzko Foru Legea, aplikatu ahal izateko, dekretu, foru agindu nahiz beste edozein prozeduraren bidez garatu beharra zegoen. Gobernu sozialistak, beraz, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia sortu zuen garapen prozesua aurrera eramateko, eta hainbat dekretu onartu zuen toponimoak ofizializatzeko, administrazio lokalean euskara teknikariak kontratatzeko diru laguntzei buruz, NAO euskaraz argitaratzeko, etab., baina, batik bat, Legeko II. Tituluko xedapenak (irakaskuntzari buruzkoak) arautu eta aplikatzeko.

Nolanahi ere, hurrengo urteetan ez zen Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautu. Zortzi urte itxaron beharko ziren Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen zuen lehenengo Foru Dekretua argitaratu arte.

#### 3.1. 70/1994 Foru Dekretua, martxoaren 21koa

1991ko hauteskunde autonomikoen ondoren, Nafarroako Gobernu sozialista izatetik UPNko erregionalista izatera igaro zen, Juan Cruz Alliren lehendakaritzapean. Aldaketa honek ezinegona eta zalantzak piztu zituen euskaltzaleen artean, euskarari nola eragingo ote zion kezkatu baitzeuden. Arduradun politikoen berriek, hala ere, behin eta berriz errepikatzen zuten Gobernu berriaren hizkuntza politikak Euskarari buruzko Foru Legearen garapenaren eta euskararen erabileraren normalkuntzaren bidetik joko zuela. Eta, epealdi honetan, aurreko Gobernuak -oinarri juridikorik gabe- abian jarritako ekintzak kontsolidatu

ziren. Hauen artean, aipatzekoak dira lan mundua euskalduntzeko zentral sindikalekin sinatutako akordioa, euskarazko udal zerbitzuak finantzatzeko administrazio lokalekin egindako hitzarmena, eta, bereziki, 70/1994 Foru Dekretua.

Dekretu honen berrikuntza nagusia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu nagusietan **zirkuitu administratibo elebidunak** ezarri izana da. Horrela, langile publiko batzuren jarrera boluntaristaren garaia gaudituz, administrazio publikoetan euskara erabiltzeko mekanismo administratibo bat instituzionalizatu zen, eta, era berean, garbi gelditu zen Iruñian zeudela Nafarroako herritar guztiei zuzendutako zerbitzu publiko gehienak.

Bigarren, euskarari leku duin bat ematen zitzaion **irudi korporatibo-instituzionalaren** barruan.

Hirugarren, eremu euskaldunetan eta mistoan lanpostuetara sartzeko nahiz bertan lan egiteko **euskara jakiteko derrigortasuna eta balorazioa** arautzen ziren.

#### 3.2. 135/1994 Foru Dekretua, uztailaren 4koa

70/1994 Foru Dekretuak, jaso zituen eraso politikoen ondorioz, oso denbora gutxi eman zuen indarrean; lau hilabete baino ez. Harrigarria gerta daitekeen arren, gobernuaren sostengatzen zuen alderdiak (UPN) zuzendu zizkion kritikarik gogorrenak, eta bereziki Iruñako alkateak (UPNren esku hau ere). UPNko alderdi zorrotzeneko hainbat pertsona ezagunek prestatutako agiri batzuek konstituziokontra kotzat edo ordenamendu juridikoaren aurkakotzat jotzen zituzten hainbat artikululu. Akusazio horiek funtsik gabeak zirela demostratzeko, Aholkularitza Juridikoak txosten berri bat eman behar izan zuen, batez ere lehen aipaturiko Euskarari buruzko Foru Legeko 1,2b artikuluan oinarrituz. Baina Gobernuaren zegoen alderdiaren baitako tirabirak baretu eta gauzak beren onera ekartzeko, dekretu berri bat onartu zen (135/1994 Foru Dekretua) 70/1994koaren orde. Hainbat xedapen aldatu zituen arren, lehen bezala utzi zituen aurreko Dekretuaren elementu nagusiak: zirkuitu administratibo elebidunak, irudi instituzionala, eta Administrazioaren lanpostuetan sartzeko euskararen esijentzia eta balorazioa.

Hurrengo urteetan, Euskarari buruzko Foru Legea garatzen duten erregelamenduak Legeak araututako hiru arloetan euskara lortzen ari zen *status* juridikoa finkatuz joan ziren, hau da, Administrazio Publikoetan, irakaskuntzan eta komunikabideetan. Nafarroako Gobernuaren kasuan elebitasuna *formala* besterik ez bazen ere, Administrazio lokalen kasuan, ordenantzen bidez, pixkanaka eta borondatez finkatu ziren elebitasunerako oinarriak.

# “Argi eta garbi esan daitekeena da hau ez dela Euskarari buruzko Foru Legeak helburu duen euskara berreskuratu eta garatzeko bidea



Matrikulazio kanpainetako datu estatistikoek aditzera ematen dutenez, Legeak indarrean daramatzan hamabost urteetan gora egin du euskarak gizartearen aldetik jasotzen duen onarpenak eta bere zabalkundeak. Horrela, euskarazko eredueta (G eredu) matrikulatutako 3 urteko haurren kopurua 1989ko %21etik 2001ko %31ra igaro da. Era berean, eta urte horietan bertan, euskara ikasgai gisa aurreikusten duten eredueta (A eredu) matrikulatutako haurren kopurua %8tik %30era igo da.

1995ean, PSN-PSOE eta EAK Euskarari buruzko Foru Legea aldatzeko proposamen bat aurkeztu zuten Parlamentuan, Ereku ez-euskalduna desagertu eta Ereku mistoari atxikitzeko, Nafarroa guztirako oinarritzko elebitasun funtzionala sortzeko asmoz. Tamalez, proposamenak ez zuen aurrera egin, ez baitzuen UPN eta HBren babesik jaso (azken honek Nafarroa guztira zabaldu nahi zuen euskararen ofizialtasuna).

Geroago, 2000ko martxoan, gehienbat nazionalista diren erakunde politiko, sindikal, sozial eta kulturalak biltzen dituen *Oinarriak* plataformak 48.000 sinaduratik gora aurkeztu zituen Nafarroako Parlamentuan, euskararen koofizialtasuna aintzatetsiko zuen Euskararen Lege berri bat eskatuz. Proposamen hau, gizartearen babes zabala jaso arren, eta nahiz eta bere oinarritzko planteamenduak logikoak izan, ez zen baina errealistegia, batetik *katalan erako* hizkuntza politika

planteatzen zuelako, eta bestetik ez zuelako Nafarroako indar politikoen korrelazioa kontuan hartzen<sup>6</sup>.

Euskarak Nafarroako Foru Komunitatean aurrera egitearen beldur, eta euskal nazionalismoaren aurkako borrokaren testuinguruan, Miguel Sanzen gidaritzako UPNko Gobernuak egoera honekin behin betiko amaitzea erabaki du, euskarak Nafarroan demokrazia urteetan inoiz ezagutu dituen neurririk gogor eta murrizkorrenak hartuz. Zehatz-mehatz, 372/200 Foru Dekretuari eta berau praktikan jartzeko onartutako Gobernu Akordioei buruz mintzo gara.

## 3.3. 372/2000 Foru Dekretua, abenduaren 11koa

Kritika ugari jaso ditu 2001eko urtarrilaz geroztik indarrean dagoen Nafarroako Gobernuak onartutako Dekretu honek. Gogoan izan, gainera, Auzitegien aurrean helegin dutela hainbat erakunde, sindikatu, alderdi politiko, instituzio, Nafarroako 57 entitate lokalek (eremu euskalduneko 62 udaletatik 50ek) eta partikularrek (besteak beste, neronek zuzentzen dudana *Euskara Kultur Elkargoa*-k<sup>7</sup>). Oraingoz, esan dezagun Nafarroako Administrazio Publikoetan euskara erabiltzeko aurreko dekretuen aldean guztiz murrizkor eta atzerakoia dela. Justizia Auzitegiek ebatziko dute ordenamendu juridikoa urratzen ote duen edo ez. Baina, nolahi ere, ilegaltasunik ez egoteak ez du inolaz ere Gobernuak politikoki modu egokian jokatu duenik adierazten.

Argi eta garbi esan daitekeena da hau ez dela Euskarari buruzko Foru Legeak helburu duen **euskara berreskuratu eta garatzeko bidea**.


Jakina denez, eremu mistoa da egoera okerreanean dagoena. Praktikan, eremu ez-euskaldunaren pareko dela esan liteke, eta ez kasualitatez, ezta gutxiagorik ere, baizik eta 1988z geroztik UPNk eta Grupo Popularrak duten aspaldiko asmoaren ondorioz<sup>8</sup>. Era berean, mugatu egiten da eremu euskalduneko koofizialtasuna. Dekretu berriak desagertarazi egin ditu zirkuitu administratibo elebidunak (administrazioan euskara normaltzeko tresnarik erabilgarriena), nahiz eta sekula ez ziren martxan jarri<sup>9</sup>.

6. Nafarroako Parlamentuak, oraingoz, ez du honen inguruan duen postura instituzionala azaldu.

7. Artikulu hau inprimatzear dagoenean, Nafarroako Auzitegi Gorenak arrazoia eman digu, eta ekainaren 26an aipatutako 372/2000 Foru Dekretua, aho batez, indargabetzea erabaki du –literalki: *Nulo Radicalmente y de Pleno Derecho*–. Honek esan nahi du bai Foru Dekretua bai jarraian agertu diren foru dekretuak, foru aginduak, ebazpenak... baliorik gabe gelditzen direla. Ondorioak korapilatsuak izan daitezke.

8. Ikus AGIRREAZKUENAGA, I. “Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera Arazten duen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren legaltasunari buruzko Irizpena”, *ELERIA* 8, 2001; 65-91 orr. Irizpen honetan, autoreak aipaturiko Foru Dekretuaren legaltasuna eta bere xedapenak jurisdikzionalki kontrolatzeko aukerak aztertzen ditu.

9. Gauza bera gertatu zen Enpleguaren Eskaintza Publikoekin: 12.000 langile baino gehiagoren artean ehun baino gutxiago dira euskara derrigorrezkoa zuten lanpostuetara sartu direnak, irakasle eta itzultzaileak salbuetsiz.



Iturria: SIGUAN SOLER, Miguel. *España plurilingüe*, Madril: Alianza, 1992, 340. or. (Erredakzioan itzulia).

Aipatu behar da testuak aurreko Foru Dekretua derogatu eta berri baten beharra justifikatzeko emandako arrazoiak ez direla inolaz ere konbentzigarriak. Honela mintzatu da Gobernuak presidentearen aholkulari juridikoa, neurri berriak funtsatzeko: *aurreko legeriak zeuzkan gehiegikeriak edo "ultra vires" konpontzeko eta eremu euskaldunetan izan ezik elebiduna ez den erkidego batean euskara aplikatzeak dakartzan arazoak konpontzeko xedea du erreforma*<sup>10</sup>.

UPNk, kasu honetan, sozialisten laguntza paregabea izan zuen. 2000ko maiatzaren 20ko PSN-PSOEn Batzorde Erregionalaren **Ebazpen Politikoak bere 9.** puntuan dioenez: *"Administrazio Publikoetan erabiltzearen inguruan, funtsezkoa da 135/1994 FD zuzentzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetako zerbitzu nagusiei dagokienez"*. PSOEko bozeramaileak urte hartako maiatzaren 24ko Parlamentuko Osoko Bilkuran eman zuen ezagutzera Ebazpen Politikoaren edukia. Euskararen garapenaren inguruan jarrera murriz-

korra hartu zuen, UPNk hartutako jarreraren pareko –edo okerragoa, apika-.

Gobernuko ordezkari gorenek diotenez, *"(dekretuaren) lehentasuna, Nafarroako herritar guztiei administrazio publikoetako lanpostuetan sartzeko aukera berdinak bermatzea da"*.

Ez dut uste errotulu elebidunak kentzeak, errepideetako seinale elebidunen ordeztasuna gutxiago izatea beste ekimenek helburu horrekin zerikusirik dutenik. Harrigarriena da nolatan ez zuen UPNko sektorerik zorrotzenak 1994an, 70/1994 Dekretuaren aurka jotzerakoan, argudio berri hau erabili. Gobernuan dagoen alderdiaren esanetan, Dekretu berriarekin konpondu nahi den arazoa (hau da, "euskararen balorazioak Administrazio publikoko lanpostuetan sartzeko suposatzen duen diskriminazioa"), arazo fiktizio edo artifical bat da, Auzitegi Konstituzionalaren 46/1991 Epaia argi utzi baitzuen -eta ondorengo beste askok ere hala uzten dute- exijentzia linguistikoa ez dela "ad

10. Manuel PULIDO. "La curiosidad del jurista persa", *EL PAÍS*, 2000-12-23.

MENDOZA PEÑA, Jose Luis. Euskararen egoera juridikoa Nafarroan. *Eleria*. 9, 2002, 63-72



*extra baldintza bat, akreditatutako merezimendu eta gaitasunarekin zerikusirik ez daukana, baizik eta bera akreditatuz printzipio konstituzionalak betetzen diren baldintza bat”.*

Azken ohar gisa, esan behar dugu Zioen Adierazpenean Hizkuntza Erregional edo Gutxiagotuen Karta Europarrari egiten zitzaion erreferentzia ezabatu izanak -Dekretuaren proiektuan azaltzen zen arren- agerian uzten duela Dekretu berriaren espiritua zein den. Karta hau, Estatu espainiarrak berrestua eta 2001eko abuztuaren 1az geroztik indarrean dagoena, obligazio juridiko bihurtu da. Eta Nafarroarentzat ere bai<sup>11</sup>.

### 3.4. 2001eko urtarrilaren 8ko (eremu mistoa) eta 2001eko otsailaren 5eko (eremu euskalduna eta enplegu deialdietako merezimenduen baremoetan hizkuntzak jakitearen arauketa) Gobernu Akordioak

Azken Dekretua aplikatzeko Ekintza Planak, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskara erabiltzeari dagokionez, neurri murrizkorreretan murrizkorrenak aurreikusten ditu.

Normalizazio linguistikoaren prozesuan sekula ez da euskara jakitea eskusiboki *“gaztelania-euskara itzulpen lanetarako lanpostuetara”* mugatzea bezalakorik ikusi -ez eremu mistoan bakarrik, baizik eta baita euskaldunean bertan ere-. Eta zer esan hizkuntza ofizial bat jakiteari -euskara eremu euskaldunean- eta beste hizkuntza atzeritarrei (frantsesa, ingelesa eta alemana) balorazio baremo bera ezartzeari buruz? Eta frantsesa, ingelesa eta alemana enplegu deialdi guztietan baloratzeko beharraz, euskara hala erabakitzen denean bakarrik baloratzen den bitartean?

Egungo Gobernu euskararen inguruan hartzen ari den neurri gogorak, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren inguruko **ekainaren 4ko 139/2001 Foru Dekretuarekin** osatu dira, zeinak kendu egiten baituen sanitarioek euskara jakitearen baldintza. Beraz, neurri honen arabera, ez dago inolako oztopo legalik Osasun Zentroetan, Oinarrizko Zentro Sozialetan edota osasunarekin lotutako beste edozein instituziotan langile euskaldun bakar bat ere ez egoteko -eremu euskalduna izan arren-.

Era berean, **uztailaren 30eko 2301/2001 Foru Dekretuaren** bidez onartu zen Nafarroako Administrazioako Plantila Organiko berriak, ezabatu egin du Institutu eta beste Eskoletan irakasle ez diren langileentzako lanpostuetan sartzeko euskara baloratzea, eremu euskaldunekoak eta D ereduko irakaskuntza (euskarazko irakaskuntza) ematen den eremu mistokoak barne. Neurri honen ondorioz, guztiz posible da -eta hala gertatu da hainbat irakastetxetan- irakaskuntza elebiduneko ikastetxeetan elebidunak ez diren langileak egotea, horrek inmersio linguistikorako ereduak kaltetzen dituen arren.

## 4. Udal administrazioa

Nafarroako Foru Komunitatearen zentralizazio administratibo handiaren ondorioz, entitate lokalak Nafarroako Gobernuari oso menpekotuta daude.

Hala ere, Entitate lokalek Euskarari buruzko Legearen (1985) zehaztasun eskasa euskararen inguruko Udal ordenantzak onartzeko aprobetxatu dute. Gaur egun, besteak beste honako udalerrri eta mankomunitateek daukate horrelako ordenantzak: Iruña, Barañain, Burlata, Berriozar, Antsoain, Uharte-Iruña, Zubieta, Bortzirriak eta Sakanako Mankomunitateak, Olazagutia eta Atarrabia. Nafarroako biztanleria osoaren bi herenei eragiten diete.

Ordenantza hauek, *de facto*, elebitasuna bultzatzen dute administrazio lokalean, eta pixkanakako borondatezko normalizazioaren aldeko apustua egiten dute.

Horregatik, 1997ko irailaren 12an *Iruñako Udalean euskara erabili eta sustatzeko Ordenantza* onartu izana aurrerapauso erabakigarria izan zen. *Hirukoaren* udalak (PSOE, CDN, IU) azkar batean jarri zuen martxan, eta bere ondorioak berehala nabaritu ziren diseinu korporatiboan, errotulazioan, langileen euskalduntzean, iragarrietan, etab.

372/2000 Foru Dekretuaren ondorioz, UPNren esku zegoen udal berria bere eskuduntzen eremuan lehenbailehen aplikatzen saiatu zen, euskara udal jarduera ofizialetik desagertaraziz. Talde sozial eta politikoei salatu egin zuten jarrera hau, *Ordenantzak* urratzen zituela-eta, baina UPNk aurrera jarraitu zuen euskararen aurkako bere politika elebakarrekin.

11. Hizkuntza Gutxiagotuen Bulego Europarreko Batzar Nagusiak, 2001eko otsailaren 3an Dublinen bildu zenean, euskarak Nafarroan bizi duen egoera eta Nafarroako Gobernuaren jokaera salatu zituen. Bojan Brezigar, aipaturiko Bulegoko presidentek, geroago adierazi zuen Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika ez zela egokia, eta birplanteatu egin beharko lituzkeela gai honetan hartzen dituen erabakiak (ikus EGUNKARIA 2001-6-1). Era berean, aniztasunaren aurkakoa eta gatazka frentistaren sustatzailea zela salatu zuen (ikus DEIA 2001-6-1). Nafarroara egin zuen ikustaldian, Gobernuak uko egin zion berarekin harremanetan jartzeari; ez ordea Parlamentuko presidentek, zeina batzorde europar batek *in situ* euskarak Nafarroan bizi duen egoera aztertzearen alde azaldu baitzen.

Nafarroako Auzitegi Administratiboa (TAN), Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza Sailaren pean dagoen organismo autonomoa, hasia da ebazpenak ematen. Esate baterako, zera adierazi zuen bere Bigarren Sekzioak, 2002ko urtarrilaren 11n: "...Iruñako Udalak udal eraikin batean (Casa Marceliano) eta Alde Zaharrean karga eta deskargarako seinaleak gaztelania hutsean jarri izanaren aurka [*Euskara Kultur Elkargoa*-k] tarteratutako gorako helegitea estimatzea erabaki du (...); eta Ordenamendu Juridikoarekin bat ez etortzeagatik deusez deklaritzen ditugu egintzak" (46. Ebazpena).

Ebazpeneko Funts Juridikoen artean, zera dio: "...aipaturiko [udal] Ordenantzak ez du 372/2000 Foru Dekretua urratzen...". Alegia, TANen esanetan, Dekretuak gaztelaniaren derri-gorrezkotasuna finkatzen du, ez elebitasunaren desagertzea. Horregatik, pentsatzekoa da geroko ebazpenetan TANek bai Nafarroako Gobernua eta bai Iruñako Udala Euskarari buruzko Foru Legea eta Ordenantzak errespetatzera behartuko dituela<sup>12</sup>.

## 5. Administrazio Zentrala

Tamalez, oso laburra izango da atal hau: Estatuko Administrazio Zentralak ez du inolako neurririk aurreikusten Nafarroako euskarari dagokionez.

Nolanahi ere, Espainiak 2001eko abuztuan Hizkuntza Erregional eta Gutxiagotuen Karta Europarra (HEGKE) berrestu zuenez geroztik, espainiar Estatuak Nafarroan euskara normalizatu eta erabiltzeko neurri batzuk hartzeko konpromisoa hartu du, Euskarari buruzko Foru Legean jasotzen direnak baino askoz ere sakonagoak.

HEGKEk espainiar Gobernua Europako Kontseiluko Idazkari nagusiari txosten bat aurkezttera behartzen du, "...Karta indarrean sartu eta hurrengo urtean..."

Nafarroaren kasuan, Espainiako erreinua eta organismo europarrak hizkuntza politikan sartu izanak euskara normalizatu eta erabiltzeko ikuspegi eta aukera berriak eskaintzen dizkigu.

Honaino, euskarak Nafarroan izan duen lege bilakaera eta egoera juridikoari buruzko atzera begirakoa<sup>13</sup>. Badira argi une batzuk, eta baita –asko, tamalez– ilun une dezente ere. Uneotako egoera ez da baikorregi azaltzeko modukoa. Baina ez dugu pesimismo antzuan erori behar. Garai hobeak etorriko direla pentsatu behar dugu; horren alde egingo dugu behintzat. Gure aldetik, nafar guztien hizkuntza eskubideak defendatzeko *Artekaria* zerbitzua eta euskarak Nafarroan bizi duen egoera Europar Batasunean ezagutarazteko *Sarea* sortu izana, gure ustez, *lingua navarrorum*-en normalkuntza prozesu luzeko bi aurrerapauso garrantzitsu dira.

12. TANek elebitasunaren aldeko beste Ebazpen batzuk ere eman ditu, hala nola 5828 Ebazpena, 2001eko abenduaren 14koa, Iruñako Udalak Gaztelu Plazan aparkatzeari buruz gaztelania hutsean argitaratutako foileto informatibo bati buruz.

13. Azterketa baloratiboago baterako, ikus J.L. MENDOZA, *El euskera en Navarra*, HERMES 2, 2001eko uztaila, 54-59 orr.